

“Ekoizpen oso ona izan da aurtengoa”

Txinpartatsua, kolore ilunxeagoa duena, usain oso garbikoa, ukitu goxoduna, sagardo oso orekatuak, gorputz handikoak, “baina oso edan errazak denen gozamenerako”. Halakoxea omen dator aurtengo sagardo berria. Uzta benetan emankorra izan omen da, bereziki aurreko udaberria euritsua izan baitzen, uda oso lehorra eta udazkena beroa. Horregatik, guztira, 13 milioi litro ekoizti ahal izan dituzte, iazko antzeko kopurua.

“Sagasti batzuk kenduta, ekoizpen oso ona izan da sagasti gehienetan: kasu batzuetan gehiegizkoa izan da eta ondorioz adar asko hautsi egin dira. Barnealdean lehorrea bereziki nabaria izan da udan eta horrek eragina izan du sagarren tamainan”, Astigarragako Sagardoetxetik adierazi dute.

“Kontsumoa igotzen ari da itsasoz bestaldera”

Ekoizpen datuok, urtarrilaren 13an Astigarragako Sagardoetxean ospaturiko 23. Sagardo Berriaren Egunean aurkeztu zituzten. Erakunde ezberdinetako ordezkariak bildu zituen ekitaldian, sektoreak



Sagardoetxean inauguratu zen ofizialki txotx garaia.

SAGARDOETXEA

“Uzta benetan emankorra izan omen da, bereziki aurreko udaberria euritsua izan baitzen, uda oso lehorra eta udazkena beroa. Horregatik, guztira, 13 milioi litro ekoizti ahal izan dituzte”

2016rako dituen erronkak aurreratu zizkiguten. Helburu nagusietako bat honakoa; “ea denon artean lortzen dugun sagardoari tokatzen zaion lekua ematea bai Euskal Herrian eta kanpoan”. Ameriketako Estatu Batuetako merkaturan murgiltzeko apustua egingo da. Sagardoetxeko aurkezpenean aipatu zenez, azken urteotan sagardo kontsumoa igotzen ari baita itsasoz bestalde. Iaz %85eko igoera izan omen zen.

“Kontsumoa igotzen ari da itsasoz bestaldera”

“Produktu oso estimatua” omen dute nonbait. Inguruotan den bezalaxe. Etxera etorrita, sagardoak turistentzat duten erakargarritasuna nabarmendu zuten. Produktu turistikoa badela, eta kalitatezkoa gainera. “Bertako sagarrarekin eginiko kalitatezko sagardoa dugu helburutzat”, adierazi zuen ekitaldira gerturaturiko Foru Aldundiko ordezkariak.

Jatorrizko Deitura izateko lanean

Sagardogintzaren atzean, urte osoan isilean lan egin duten hainbat ekoizleren lana ere txalotu zuten. Sagardoa lanpostu sortzailea ere badela gogorarazi zen. Baina baita askoz gehiago ere. “Geure kultura, tradizioa, oinarriak islatzen ditu”, ziotenez. Horregatik, sagardogileekin duten konpromisoa berretsi zuen Diputazioak. Hain zuzen, abuztuan sektore honetako lanketa abiatu zu-

tenetik 100 urte beteko direla iragarri zuten. Mendeurren honetarako, sagardogintzara bideratu ohi dituen diru-laguntzez gain, bi laguntza lerro berri izango omen dira aurrean, sagardo ekoizpenerako lur berriak eskuratu eta lur horietako ekoizpena sustatzeko.

Sail berri ekoizpena

Aldundia sagardo ekoizleak la-

guntzen ari den artean, Eusko Jaurlaritzak, epe ertainerako, “Euskal Herriak Babestutako Jatorrizko Deiturako edo Babestutako izendapen Geografikoko sagardoa izateko lanean ari da”.

Lanketa honetarako ezinbestekotzat jotzen dute, “gaur egungo sagastien eta sail berrien ekoizpenerako ahalmena handitzeko”, Aldundi eta ekoizleen inplikazioa.



Sagastien eta sail berrien ekoizpenerako ahalmena handitzea ezinbestekotzat jotzen dute.